

ELEIZEA ETA BEARTSUAK

1. Eleizearen zeregiña

Eleizeak be ba ei dau, gaur zabal diñuenez, bestelako joera artu bearra. Erriak gauregun era barri batzuk eskatzen bait dauskuz eleizea ulertu ta bizi izateko.

Eleizea -diñogu- erriaren ama-altzoan jaioten da. Eta jaiotze be Espirituaren arnas beroak emokor eginda. Eleizeak ez ei ditu erriak egin bear: erriak or dagoz leendik be. Emen daukaguz, esate baterako, Bizkaiko erriak. Zein da, beraz, Eleizearen egitekoa? Erri onen batasunetik sortua dan ezkeror, beronen zerbitzari izan bear dau; beronen gurari, nai ta indarrak, beronen alegiñak eta itxaropenak zuzendu ta indartsu egin.

Bizia jarten dautson Espirituaren arnasean ezaugarri dozu Eleizea. Onen argiz eta laguntzaz, ez aginpidez gero, bide on, egoki ta zuzenetik doa erria.

Testigantza emon bear dau Eleizeak, erriak beronengandik itxaroten dauan testigantza: uste ona sortuz, egia erein bide batez. Au esan oi da, ta olaxe da, erria egiaz Jainko-erri izan dedin, erriak erri izan bear dau bere lur-saillakaz, bere lur-gaiñeko gizonakaz bere bazter itxi ta ezeukiakaz, erbestekuakaz, giltzapetuakaz, zarrakaz eta lanik ez daukienekaz, samiñez dagozanakaz. Au da, txantxadura izan bear dau oreaan...

Eleizeak, esan oi da, ezpei oiñik jarri bikaintasunean eta bereizkuntzan, eginpide edo nausitasunean; batasuna, bardintasuna, anaitasun zabala bediz bere ezaugarri nabarmenak. Kondairan sarri egin dauz Eleizeak olako bereizkuntzak, nagusien eta menpekoen artean, jauntxoan eta zerbitzarien artean. Kristok alan be ez eban olakorik nai.

An eta emen Eleizea ots-egitean, Jesus'en mendiko itzaldia eta Berak beiñola Nazaret'en egiñak gogora ekarten ete doguz? Nazaret'eko jazoera onela azaltzen dausku Lukas Deunak:

«Zapatuz sinagogan sartu zan, oi eban ez, eta liburuia edegitean, pasarte au aurkitu ta irakurri eban: «Jaunaren espiritua nire gaiñean dago, berak gantzutu nau, beartsuui barriona adierazteko, katibuai askatasuna eta itsuui ikusmena otsegitera eta zapalduak askatzera bialdu nau; Jaunaren onezko urtea aldarrikatzer» (Luk, 16-19).

Auxe da, nik diñot, Eleizearen arazoa, eginkizuna. Bearizanean dagoanari lagundu. Bildur barik. Kristok egiña orixe da-ta.

2. Lanari ekin bearra

Naste ta uts dabilkigu mundua, ondasunak dirala-ta batez be. Aberatsak eta ez-eukiak, pertsonak eta naziñoak. Gizonak, egia esan bear dot, beti izan dau, eta izango be bai, batzuk eta besteak, ondasun eta aberastasun griña bizia, egarri ezin itoa. Iñok ez dau txiro ta pobre bizi gura.

Izan be Jainkoak ipiñitako legea dau gizonak lana ta lanaren frutua. Jainkoak, argi irakurten dogu Asiera deritxon liburuan, baratz bat landatu eban Eden'en, eguzki alderantza, ta antxe ipiñi eban Berak egindako gizona, baratz axe zaindu ta jagon egian. Eta, laprasketa bat zala bitarte, leen atsegingarri zan lana, debekatuan jausi ondoren, Jaunak zigortuz esan eutson: «Nekearen nekez aterako dautsazu lurrari jatekoa... Zeure bekokiko izerdiaz jango dozu ogia» (As., 3,17).

Gizonak, beraz, lanari ekin bear dautso jateko ta jazteko. Auzi oni dagokionez, beti ikusi doguz munduan, eta ikusiko be bai, goraberak eta istilluak, familietan, naziñoetan, ezeukien eta aberatsen artean. Gaur, iñoiz baiño geiago nunbait.

Naziño ta laterri arteko arazo oni begira, moltzo edo talde bi daukaguz, au da, naziño aberatsak; ekonomi-aldetik guztiz aurreratua, eta oindiñoarren ekonomi-aldetik aurrerapen gitxi egin daben lurraldeak: lenengoak bizi-modu eroso-erosoa daroe, eta bigarrenak eskastasun naiko gorrian, guztiz bearrean bizi dira.

Gaur-egun famili bat-bakarrean gizaseme ta emakume guztiak taldetzen dituan gizarte alkartasunak -diñosku «Mater et Magistra» idazkiak-, ekonomi aldetik ondo dagozan naziñoak alkarri laguntzen beartzen ditu; naziño aberatsak ez dabe ardura barik egon bear, ainbat eragozpen artean, mixeriz ta gosez estu ta larri aurkitzen diran lurraldeetako zapalduen aurrean. Oneik, bada, ez daukie sarritan oiñarrizko giza-eskubideen erdirik be. Gaur argiago egiten jaku au, komunikabideen bitartez. Guztiok famili aundi bat osotzen dogu, eta diferentziok ikusiz, askoz gatxago da guztion arteko bakea dakarren armonia zaintzea.

Auxegaitik diño Juan XXIII'garren Aita Santuak: «Danok gara urri-janaritutako errien errudun... Beraz, guztion eta bako txaren betebear astun onen kontzientzia itxartu bearra daukagu, eta ekonomi aldetik indartsu diranengan batez be».

Eleizeak agiri danez beti otsegin dau katolikuak dirala onetan deadar egin bear dabenak, beste iñok baiño zoliago, katolikuak dirala beartsu, ezeuki ta bearrizanean aurkitzen diranai lagundu bear dautsenak; onixek dira, ba, Kristoren gorputz mistikua osotzen dabenak beste iñor baiño geiago.

San Juan apostoluak argi dirausku: «Onetan ezagutu dogu zer dan Jainkoaren maitasuna: Arek gure alde bere bizia emotean. Geuk be anaien alde bear dogu gure bizia emon. Lur onetako ondasunak izanik, bere anaia premiñan ikusten ba'dau, eta

biotza izten ba'dautso, zelan dagoke arengan Jainkoaren maitasuna?» (Jon, 3, 16-17).

3. Lurreko ondasunak

Ondasunak lurretik eta gizonaren lanetik datoz. Lurrak, ostera, ez dira danak bardiñak: lur batzuk berez dituzu jori, emonkor eta aberatsak, beste batzuk legor, aretsu ta esker-txarreko. Sail batzuk, gizonaren erruz, latzin itxita dagoz, lantzar dagoz urteetan.

Uri aundietan batu da jentea azken urteotan. Lurrak bertanbera itxi ta kaleko bizitzea erosoagoa dalakoan, uri izugarrietan sartu da jentea; lur-lanari agur egiñik, industri-lanari ekin. Baiña onek emon ez bear beste jateko ta diru; erritar moltzo aundiak mixeriak eta goseak larri darabiltz. Ori dala-ta, bai justiziak eta bai gizadiak eskatzen dabe, garrazika, naziño aberatsak naziño beartsuai emon dagiela alkarri bear daben laguntasuna.

Orrezaz gaiñera, modu askotako laguntza izan daitekkelako, Aita Santuak zientzi, teknika ta dirua be eskatzen ditu. Egia da. Momentu naiz urte beteko laguntzak, esaterako, ezin daike bertatik uxatu lurralde askotan mixeri ta gosearen zegaitiak. Geienetan, mixeri orren sustraia lurralde orrein ekonomi-sistema atzeratuetan dago. Atzerakuntza oni osabidea, erremedioa jarteko, aal diran bide guztiak aztertu ta erabilli bear dira; alde bate-tik naziño atzeratu orreitako jentea oso-osorik eskolatu daiten teknika arazoetan eta euren ogibidean egoki jokatzen, eta, bes-tetik, euki daiela esku artean eurak euretara ekonomi arloko ugaritzea egokitzen dautsen diru edo kapitala. Au, jakiña, gaur-eguneko aurrerapenak eskatzen dauen burubidez osaturik.

Eleizea guztion ama da, eta ama onak lez, dei amakorra aldarrikatzen dau, leen eta orain; leen, mundua urduri aurkitzen zala, Leon XIII'ak «Rerum Novarum» idazten dau 1981'an; gero, bat baiño ez aitatzeke, «Mater et Magistra» argitaratzen dau 1961'an Juan XXIII'garrenak. Mundua asko obetu da arrezkero; justizia aspertu barik otsegin ezeze erein da bazterretan,

joputza (gizonak abere izatea) bastertu da Afrika ta Asia'ko errialde askok euren buru-jabetsa lorturik.

Alan be, ez Europa'n eta ez Ameriketara «enperadore» izena daroan agintaririk egon ez arren, ba-dira oraindik kaisarkeriaren lorratsak, jaunkeriak beronen erpa artean daukazan errialdeak. Mixeri asko dago gaur be, or-emen. Leen aberatsak eta pobreak banantzen zituen maillak, gaur-egun, erri aurreratuak eta atzertuak banantzen. Janari urri-exkasak; gosea milloi askoren atxetan, eta mundua azi ta azi; lur zabalak langille barik, lan-aldi txarto ordainduak, emakumeak eta umeak lan-postuetan, eskolarik eza, iraultza or-emen, federik eza, etsipena... Goi ta bee, edonun itzal aundizko laino zakarrak gainez-gaiñ.

4. Laino erreik urte bear

Ondo deritxagu onek eta arek euren aldetik, erakunde naiz elkarte legez, zerbait egitea. Baiña ez da gaur naikoa ori bakarrik; geiago bear dala dirudi. Munduak gaur daukon egoerak era bateko alkarren aldeko alegiñak eskatzen ditu. Eta ez edozein ikuspegitik begira, gizarte, ekonomi, kultura, ezpirituzko ikuspegia aintzat arturik baiño.

Arlo onetan Eleizeak bakarrik burutu daike lan oso, egiazko ta emonkorra; beronek bait dau gizaldi luzeak erakutsitako ezperientzi bikaiña, eta beronek, Laterrien arazo ta indarrai kalterik egin bage, orrekin politikan nastu barik, aurrean eroan daike Espirituak arnas-emonda, Kristoren egintza, erriak eta jentek eskolatu, duindu ta zorion bidetik zuzentzeko lana.

Jainkoaren ezpiritualak nai dauanez eta nai dauanean arnasa dagi. Eta goi-arnasa orrek nundik eta noiz bultz-daragion ikusi bear dau Eleizeak: aldi bakotxean aldiko ezaugarriak nunbait. Ezaugarri erreik billatu bear ditu ta barri-onaren argitan eurak aztertu ta erriari adierazo. Erriaren ona aurkitzen alegindu bear dau beti, gizonak adimen eta biotz jokatu daian bizitz onetan eta bestean bere izantasanaren betearen betea eskuratu arte.

Eleizeak, Kristoren argi-zuzia eskuan daua, aurrera jo bear

dau. Erriak osotzen dau Eleizea. Erriak ez du geldirik egon bear, atzera begira, aurrera jo baiño. Eleizeak be aurrera jo bear. Erriaren zurrumbilloan? Itxaso da erria, gaur olatu aundiz eta biar baretzu. Itxaso orren bizkar dabillen ontziaren lemari Eleizea dozu. Ontziak ez dau agintzen -zer da ontzia uin artean?- lemariak baiño.

Beste irudi bat: or artalde bat, ardi zuri askoz ornidua. Nok zuzenduko artalde ori? Artaldeak berak ete? Ezta iñoiz be, o-tsoen janari litzateke laster. Artzain bat bear dau artaldeak, larra gurietan bere ardiak zuzendu ta etsaiengandik zaindu dagizan. Or erria ta Eleizea. Ez esan, ba, suster bako zerik, erri-eleiza o-tsegiterakoan, erria dala eleizea ta olakoak. Bai ta ez. Erriak osotzen dau Eleizea, barriro esanik, baiña eliz-artzain batek -Aita Santuak eta Gotzaiñak, esaterako- zuzendu bear dau Eleiza ori. Orrela nai izan eban Berak, Eleizearen buru Pedro ipiñi eban Kristok.

5. Aurrera...

Gizonak, adimenez eta naimenez jantziak, aurrera egin bear dauala, ori ez dausku iñok be ukatuko. Umetatik, eskolara joanez eta gero irakurri ta ikasten alegiñak egiñez, aurrera eroan bear dau bere kultura, gogo-lantze arloa. Ez gaitez an iñoiz izan atzerantz bide dagien olakoen pareko.

Gizarteak bardin, erriak orobat aurrera jo bear dabe. Eta kemen aundiagoz orreitako batzuk: gosez eta mixeriz bizi diranak, odoleko gaixoz eta sarritako gatxez zapalduta dagozenak, -ez-jakiñean garagarra egiten dabezanak. Zibilizaziñoak ekarri dauskuzan frutuetatik aukera geiago euki nai dabezanak, ez dira gitxi; eta guztion bardintasunari begiratuz, ezta arrigarri gizon eta erriok be, atzeratuok diñot, zerbait geiago gura izatea.

Eleizea, azken urteotan, Batikano'ko II Batzarraren ostean batez be, Kristoren Ebanjelio mezuari urragoitik jarraitzen alegindurik, gizon-emakume guztien zerbitzuan diarduena dozu, maitasunez eta ardura bereziaz. Gizadiaren kondaira aldatuz doa,

argi ta garbi dakusgunez, eta Eleizeak esku artu nai dau, eta oso-osoan artu be, gizonak gaur daukazan buru-auste, gorabera ta is-tilluetan. Itxasoan zabu-zabuka dabillan ontziaren buruak, zintzo ta arduratsu jokatu bear dau bere ontzia, aurretiaz erabagitako portura, ezereñ oztopo barik eldu daiten.

Asko dira gaur andik eta emendik datozen erri-garraziak. Onei guztioi erantzun bear dautse Eleizeak, geure anaien dei-oiuak dira-ta.

Aita Onaindia



ESTUDIO
FOTOGRAFICO

ARGALKARI

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)*

San Miguel kalean, 14
Urrut: 673 0509
AMOREBIETA

Trañabarren-Bloque, 1-4-13
Matiena - Abadiano